

OSALDE

OSASUNAREN ESKUBIDEAREN ALDEKO ELKARTEA

MEMORIA 2007

AURKIBIDEA

1.- AURKEZPENA

2.- JARDUERA PLANA 2007

3.- ZUZENDARITZA BATZORDEA

4.- TALDEAK ETA LAN ARLOAK

4.1. LEHEN MAILAKO OSASUN ARRETA

4.2. GARAPENERAKO LANKIDETZA

4.3. INGURUMENA ETA OSASUNA

4.4. EMAKUMEA ETA OSASUNA

4.5. LANEKO OSASUNA

4.6. OSPITALEAK

5.- ARGITALPENAK

6.- ANTOLAKUNTZA ETA FINANTZAK

AURKEZPENA

Pasa den urtean OP (Osasun Publikoaren aldeko Elkartea- Asociación para la Defensa de la Salud Pública) OSALDE bihurtu da (Asociación por el Derecho a la Salud-Osasun Eskubidearen aldeko Elkartea).

2008an, gure elkarteak 25 urte beteko ditu. OSALDE osatzen dugun lantaldeen jarduera 2007ko Memoria honetan islatuta agertzen da. Memoria urtero argitaratzen dugu, Urteroko Ohiko Batzarrarekin bat etorritz.

2007a urte berezia izan da, Osakidetzan egondako gatazka dela eta. Osasunaren sektore publikoko langileek denbora luzez gordetako tentsioak eta ondoeza kanporatu egin dira.

Gure elkarteak bere iritzia adierazi eta Osakidetzan dagoen arazoa aztertu nahi izan du, orain dela 25 urte sortu ginenetik daukagun ikuspuntuaren arabera; hau da, osasun publikoaren defentsa. Dagoen ondoeza eta arazoak konpontzeko, sakoneko konponbideak behar direla ikusarazi nahi izan dugu. Horretarako, pasa den urtean hainbat buletin editatu dira, albisteen analisirako daukagun argitalpenaren barruan: "Opiniones – Iritziak". Horietako baten batean adostasuna lortu dugu osasun arloko sindikatuekin, eta gure kezkek eta konponbiderako proposamenak adierazten saiatu gara. Izan ere, euskal osasun publikoak oso larriak dauzkala uste dugu.

Euskal Osasun Publikoaren Administrazio buruetako batzuek gure ekarpenei eman dieten erantzuna benetan tamalgarria izan dela deritzogu. Seguru aski, erakutsi duten jarrera hori da Osakidetzaren gatazka ekarri duten arazoaren iturria, eta erakundeak hasieratik eduki duen kudeaketa eskasarena.

Edozelan ere, gatazka horrek inbertsioak suspertzeko balio izan du. Izan ere, hamar urte baino gehiago ziren geldituta zeudela, gure errenta-mailari dagokion baino askoz baxuagoa zen maila batean. Benetan espero dugu guzti honek arazoak errotik hobetzeko balioko duela.

OSALDEko bazkide ez diren osasun sektoreko pertsona askok bat egin dute gatazkari buruz argitaratu ditugun dokuemntuetan isaltu dugunarekin, eta euren adostasuna helarazi digute.

Ahalegin garrantzitsua egin dugu gure argitalpenak eta bazkideekiko komunikazioa indartzeko, bereziki gure helbide elektronikoen bitartez. Beraz, argitaratutako dokumentuetako batzuek bazkideen ekarpenak izan dituzte.

2007an gure WEB orria jaio da: www.OSALDE.org.

Oraindik eraikitzen ari gara, eta espero dugu orri hori erreferentzia bihurtzea osasun publikoaz kezkatzen diren pertsonentzat, arlo horretako langile izan zein ez.

Gure helbide elektronikoan (op.paisvasco@gmail.com) gero eta mezu gehiago jasotzen ditugu, hainbat taldetakoak: Osasunaren lankidetzako GKEk, elkarte profesionalak, talde ekologistak, feministak, sindikatuak, komunikabideak, eta abar. Horietaz gain, beste elkarte kide batzuk ere badaude hor, eta horiekin batera osatzen dugu Osasun Publikoaren Defentsarako Elkarten Federazioa, "Federación de Asociaciones para la Defensa de la Sanidad Pública" (FADSP) delakoa.

2007an eta 2008aren zati honetan, benetako erasoak jasan dugu sektore kontserbadoreen aldetik. Osasuna pribatizatzeko interes argiak ikusi ditugu eta horrek Estatu mailan eragina izango du.

Alde batetik, Haurdunaldia Borondatez Eteko Legearen kontrako eta emakumeen erabakitzeko eskubidearen kontrako erasoak. Zoritxarrez, legearen barruan egiten diren etenduren %3a baino gutxiago egiten dira osasun publikoan. Kontzientzia eragozpena ez dago araututa, eta Osasun Sistema Nazionalako mediku askok alegatzen dute.

Beste alde batetik, Madrilgo Leganéseko Severo Ochoa Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan kargu-uzteen bidez hasitako erasoak. Pazienteek duintasunez hiltzeko daukaten eskubidearen aurka egin zen orduan, behar ez den minik jasan gabe eta "krudelkeria terapeutikoaren" mende egon gabe. Gai hori kezagarria da gizartearentzat, gero eta bizitza luzeagoa baitugu, baina bizi eta heriotz kalitateari eragiten dieten gaixotasun kronikoak pairatzen ditugu.

Europako testuinguru globalak osasuna pribatizatzeko joerak babesten ditu, eta autonomi erkidego batzuetan are markatugoa da joera hori, hala nola Madrilan eta Pais Valencià. Pasa den urtean kezka iturria izan dira bi horiek, eta horretaz gain, itxaronzerrendak murrizteko osasun pribatuarekin hitzartzea eta ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuak pribatizatzea.

Orain "OSALDE – Osasunare Eskubidearen aldeko Elkarteak" da gure izena, eta lema hau zabaldu dugu azkenaldian, gure taldearen definizio bésala: "Osasuna eskubidea da, ez merkantzaia". Gure bilakaerak gure kezkak adierazten ditu, oraingoak eta etorkizunera begirakoak, gure Elkartearen 25. urteurrena den honetan.

2008ko otsaila.

Presidentea
MARIO FERNANDEZ

LANEKO PLANA 2008

2008a hasi berri da eta lan handia dugu egiteko. Orain dela 25 urte gogo handiz hasi ginen, 1983an, osasuneko erreformarekin kointzidituz eta gogo horrek bere horretan jarraitzen du. Ez dira garai onak mugimendu sozialetarako. Hala ere, elkarte bezala mantendu gara, bazkide kopurua hazi da eta esperientzia handiagoa daukagu. Normala den bezala, bidean adiskide onak galdu ditugu; guztientzako kalitatezko osasun sistema unibertsal eta eskuragarria lortzeko kezka eta nahia gurekin konpartitu duten pertsonak. Gogoan ditugu urteurren honetan.

Osasuna oinarrizko eskubidea dela deritzogu. Horrek zerikusia dauka osasun asistentziarekin eta faktore sozial eta ingurumeneko faktore sorta batekin ere. Gure ikuspuntu hori gure taldearen izen berriak islatzen du: Osasunaren Eskubidearen aldeko Elkarte, OSALDE.

Osasunaren eta osasun publikoaren alde lan egiten jarraitzeko beharra inoiz baino argiago dago gaur egun.

Pasa den urtean, osasun arloko gatazkaren inguruko iritziak eta analisiak elkartrukatu genituen sindikatuarekin. 2008an, hainbat elkarte profesionalekin harremanak ezartzen ari gara. Osasun arloko sindikatuarekin harreman estua mantentzen jarraituko dugu, baita gure kezka berak dauzkaten eta osasunarekin erlazionatutako lana egiten duten elkarteekin ere.

Osasun Publikoaren Defentsarako Elkarten Federazioan (Federación de Asociaciones para la Defensa de la Sanidad Pública-FADSP) aktiboki parte hartzen jarraitzen dugu. Orain dela gutxi, Ministerioak "Encomienda de Sanidad" delakoa eman dio, osasun publikoaren defentsan egin duen lana aitortzeko. Federazioa inoiz baino aktiboago dago, Estatu Espainiarreko erkidego batzuetan bereziki eraso ultraliberala eman den garai honetan (ospitale publikoen kudeaketa pribatizatzea, emakumeek haurdunaldia eteteko erabakia hartzeko eskubidearen aurkako eraso, heriotza duin bat izateko eskubidearen aurkako eraso, eta abar.) Osasun publikoaren defentsan borrokatzea merezi du.

Urtarrilaren 21etik 26ra bitarteko astean "Munduko Foro Soziala" izenekoan parte hartu dugu, gure lelopena: "Osasuna eskubide bat da, ez merkantzia bat". Aurten ez da zentralizatuta egon. Maiatzean, OP-OSALDEren 25. urteurrena dela eta, Jardunaldi batzuk egingo ditugu Bilbon.

Eztabaidatzeko gaiak lau ardatz handitan banatuta daude. Klean eta lantokietan eguneroko gaiak dira:

- Bizitzaren medikalizazioa eta farmaziako kontsumoa.
- Emakumeen osasuna: Abortatzeko eskubidea eta neskatilei GPBren aurkako txertoa jartzea.
- Heriotza duin bat izateko eskubidea eta
- Lehen mailako arretaren oraina eta geroa.

Arlo desberdinetako adituak izango ditugu gurekin, Catalunya, Madril, Extremadura eta nola ez, EAE eta Nafarroakoak.

Arlo desberdinetako lana hobetzen jarraituko dugu: Ospitaleak, Lehen mailako arreta, Bioetika, Emakumearen Osasuna, Osasuneko Lankidetzak, Ingurumena, Laneko Osasuna eta Osasun Mentala. 2007ko argitalpenen maiztasuna mantentzen saiatuko gara, eta kide guztiekin harremana mantentzen. Gainera, gure WEB orriari azken bultzakada eman nahi diogu. www.osalde.org eraikitze bidean dago oraindik, eta seguru gaude gure elkarte eta gure jarduerak hobeto ezagutzeko aukera emango duela. Beti osasunaren eskubidearen alde.

OSALDEko Zuzendaritza Batzordea

LEHEN MAILAKO ARRETAKO LANTALDEA

Osalderen Lehen Mailako Arretako taldeak bere ohiko jarduera bete du 2007an. Zortzi bilera egin dituzte; horietan, Osakidetzaren Lehen Mailako Arretari buruzko berriak aztertu eta eztabaidatu dira.

Tratatu diren gaien artean hauek daude:

- Osakidetzako laneko gatazka. Bilera batzuetan, Osaldek ezagutzera emandako bi dokumenturen berridazkari buruz eztabaidatu zen. Edukiari zegokionez, ekarpenak egin ziren, eta zuzenketa posibleak planteatu.
- GPBren kontrako txertoa ezartzea, uteroaren lepo minbizia prebenitzeko neurri gisa.
- Osasun zerbitzuen eskuragarritasuna eta diskriminazio asistentziala.
- Prestazioen katalogoa eta horren ezagutza falta, profesionalaren eta herritarraren aldetik.
- Koordinazio falta asistentzia mailen artean.
- Preskripzioa eta generikoak
- Kontsultak desburokratizatzea.
- Osabide programa, bere funtzionamendua aztertzea, errendimendua, arazoak...
- Cacereseko eztabaida jardunaldietan onartutako FADSP-ren "**la fortaleza de la atención primaria : valores y retos organizativos**" dokumentoaren lehen ziriborroaren elaborazioan; zenbait aldagaita hausnarketarako proposatuz.

Beste alde batetik, laneko beste ildo bat hau izan da: taldeak 2006ko urrian antolatutako Jardunaldiko txostenetako testuak biltzea. Horren helburua zera da, guzti horiek OP Koadernoak argitalpenaren ale berri batean argitaratzea. Hala ere, ez ziren txosten guztiak lortu eta lortutako batzuek diapositiba formatua zeukaten, eta ez testu formatua.

Lehen Mailako Arretako taldean hauek daude: Esther Etxegarai, Pedro Ortueta, Agurtzane Ortego, Pedro Valdés, José Luis López eta Maite González.

KOOPERAZIOKO LANTALDEA

1. 2007an hiru proiektu burutu ditugu: Bi Santa Bárbaran, Hondurasen, eta bat Mozonten, Nikaraguan. Guztira, aurten 13 kooperante mugitu dira, denbora tarte desberdinetarako. Esther Sanchez (Erizaina eta Antropologoa), Arnaldo Mendoza (Proiektu Teknikaria), Lourdes Unceta (Erizaina), Inma Escribano (Erizaina), Maite López (Erizaina), Itziar Fernandez (Pediatra), Mina Galán (Familiako Medikua), Rocío Lamarca (pediatra), Itzi Cabieces (Psikologo Klinikoa), Natalia Ces (Erizaina), Izaskun Verdejo (Familiako Medikua), Kike Ojembarrena (Digestio-aparatuko Medikua) eta JL Uría (medikua). Esther eta Arnaldo 9 hilabeterako; Rocío, Itziar F, Mina, Izaskun eta Natalia 3 hilabeterako; Lourdes eta Inma hilabete 1erako, eta Maite, Kike, JL eta Itzi C. 15 egunerako.
2. Aho eta hortzetako arretarako proiektua garatu da, UPV/EHUrekin egindako Hitzarmen bidez. Odontologiako 5. mailako 18 ikasle edo lizentziatuk hartu zuten parte, uztailaren 1etik urriaren 30era. Javier Ruiz koordinatzaile lanetan egon da lau hilabetez, OSALDEK kontratatutako Proiektuan. Halaber, bi odontologo gonbidatu ditugu: Txemi del Olmo, ebaluazio tekniko bat egiteko, eta Agurne Torre, ebaluazio kualitatiboa egiteko. Biak dira Osaldeko kooperante boluntarioak. UPV/EHUK ebaluazio horietan eta horien argitalpenean lagunduko du. Bideo bat grabatu da, Santa Bárbara herriko Klinika Odontologikotik urrutien dauden mendiko komunitateetan bizi izandako kooperazioaren esperientziari buruzkoa.
3. "Lehen mailako arretarako klinika mugikorrak" ("Clínicas móviles para la Atención primaria") deritzon proiektua ospitaleak berak kudeatzen du, eta horrek aurrera jarraitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak 89.000 euro eman ditu aurten.
4. Gure erakundeak proiektu berri hori monitorizatu egingo du. 2007ko azaroan hasi zen eta 2008aren amaiera arte iraungo du. "Etxeko ospitalizazio" jarduerak egiten dira, eta herri-guneetatik urrutien

dauden komunitateetan Lehen Mailako Arreta gero eta gehiago estaltzeko.

5. Datozen bi urteetan, funtsezko lana osasun sektoreko sentsibilizazioa izango da; eta hausnarketa egitea, azken 10 urteetako lan ildoak egokitzeari buruz.

6. Datozen bi urteetan, gure lan ildoak hauxe izango da:

- **Laguntza puntualak Ospitale, Osasun Zentro, Osasun Publikoko Zerbitzu edo Garapenerako bidean dauden herrialdeetako erakunde sanitarioei.**
- **Osasun sistema publikoak, Osasunaren Eskubidea eta elkartruke profesionala babesten dituzten GKE kide edo Erakunde batzuekin Partzuergo edo Hitzarmenak ezartzea. "AMSOGRA" GKEekin hitzarmena sinatu da. GKE horrek Nikaraguako Granada eta Masayan egiten du lan. "Médicos del Mundo" erakundearekin ere lankidetzak puntualak egon dira, San Juan Errekako SILAIS-en (Nikaragua).**
- **Erakundeetan eztabaida hau ezartzea: azken 20 urteetan egin dugun Kooperazio sanitarioaren praktika; bereziki, azken 10 urteetako. Autokritika soila egitea. Bost mintegi antolatuko dira, dagokion unean iragarriko direnak. Bereziki, azken 10 urteetan OSALDERen proiektuetan jardun duten boluntario guztiei egingo zaie gonbidapena (EAEko osasun arloko 80 profesional baino).**
- **Sentsibilizatorako gaietan maiztasun handiagoa: Bideoak, argitalpenak, kartelak, diapositibak, hitzaldiak, erakusketak... Osasun Zentroetan, Erizaintza Eskoletan eta Medikuntza eta Odontologia Fakultatean; bai kanpainen bidez, bai horretarako bereziki egindako plan baten bidez.**
- **Sahara azpiko Afrikan osasuneko kooperazio proiektuetan egiten dugun parte-hartzea ondo aztertzea. Abantailak, desabantailak eta gure ekarpen berezia aztertzea. 2010erako Plan bat ezartzea.**

7. Bi bideo egitea, hauei buruz: Nikaraguako Mozonte eta San Lucaseko esperientziak eta Hondurasen izandako aho eta hortzetako osasunarena. Horretaz gain, argitalpen bat (OP KOADERNOA?) ere kaleratzea, gure kooperazio praktikari buruz.

8. Urte honetan egingo diren tailer eta mintegiei buruzko liburu bat argitaratzea. "Cooperación y salud" buletinaren 10. zenbakia editatzea.

9. UPV/EHUrekin lan ildo berriak aztertzea aho eta hortzetako osasunaren proiekturako, egindako ebaluazioen arabera. Aho eta hortzetako osasunaren lana garatu, sakondu eta hobetzea, beharrian gehien duten komunitateetan. Horretarako, Hondurasko San Pedro Sula unibertsitate zentroekin arituko gara.

10. Ahalik eta gardentasun eta argitasun handienaz mantentzea Kooperazio Taldearen kontuak; barneko kontu-ikuskaritza bat egitea, horren gaineko informazioa ematea Zuzendaritza Batzordeetan, WEB orri berriak eta Erakundearen dokumentu publikoetan.

INGURUMEN ETA OSASUNeko LANTALDEA

Taldearen koordinatzailea: Mario Fernandez. Medikua. Masterra Osasun Publikoan. Masterra Ingurumenaren Osasun-arretan.

Osasun Publikoa baldintza sozial, kultural eta ingurumeneko baldintza batzuen mende dago. Gainera, erlazionatuta dago kalitateko osasun-asistentziarekin, eskuragarria eta guztientzako orokorra. Ingurumenari eragiten dieten faktoreen gaineko kezka eta esku hartzea oso garrantzitsuak dira gure elkartearen jardueran.

Gure inguruan, industria jardueratik eratortzen diren eta ingurumenean dauden kutsatzaileek heriotzen arrazoieta eragina izan dute. Izan ere, jarraitu dugun garapen-ereduarekin bat dator. Kutsadura horrek heriotzen arrazoieta eragina izan du, eta gaur egun ere, eragina dauka, nahiz eta arrisku-faktoreen eragina eta gaur egun ezagutzen ditugun patologia ugarien arrazoiak oso konplexuak izan.

Hala ere, azken hamarkadetan eta askok "industria ostekoa" deitzen dioten garai batean, osasunarentzako arrisku berriak sortu dira, sartu garen gizarte eredu honetatik eratorrita.

Askotan biometagarriak diren substantziengatik sortzen den kutsadura kimikoak sistema endokrinoak eragiten du. Horri gehitu behar zaio atmosferako kutsadura, trafikoak, bereziki hirietan, sortzen duena. Horri egozten zaizkio garai aurreko 16.000 heriotza urtean Espainian, SEPAReko datuen arabera.

Osasun eta Ingurumeneko 2007ko Adierazleen Eboluzioari buruzko Txostenaren aurkezpenean, Osasuneko Kontseilariak zera aitortu zuen: 2005ean, euskal biztanleriaren %14k Europar Batasunak finkatutakoa baino maila altuagoko partikulen kutsadura atmosferikoaren eragina izan zuen. EAEn, biztanle bakoitzeko petrolioa eta gainerakoen kontsumoa %87 hazi da, 1994 eta 2005 artean.

Diesel ibilgailuen kopurua %13tik %53ra hazi da hamar urtetan. Horrek arazoa larriagotu egiten du; izan ere, diesel motoreek sufre oxido gehiago sortzen dute eta SO₂en eragina asmarekin erlazionatu da. Gure inguruan ugartzen doaz asma kasuak, batez ere umeengan.

Gainera, diesel ibilgailuek partikula gehiago askatzen dituzte, gasolina motoreek baino lau aldiz gehiago. Azken urteetan, kezkatzeko arrazoi bat izan da hori. Oso txikiak dire partikulak, finak eta ultrafinak, bronkio-zuhaitzean oso sakon sartu ahal dira, eta albeoloetara heldu. Horietara itsasten dira erregaien hidrokarbuero aromatiko poliziklikoak, eta ADN eta ARNan kalte oxidatiboa eragin dezakete. Horretaz gain, zelulen proliferazioa ahalbidetzen duten zitokina proinflamatorioak gehitzen dira. Horregatik, minbizia bereziki sortu ahal dute.

2007an, Erika ontzia hondoratzeak ekarri zuen desastre ekologikoaren inguruko epaiketa izan da. Ondoraketa horren ondorioz Britainiako kostaldea petrolioz kutsatu zen 1999an. Urtarrilaren 17an petrolio-ustiategi osoaren kontrako epaia ezagutu genuen, desastrearen erantzulea izan baitzen.

Hurbilen daukagun hondamenditik, Prestige hondoratu zenetik, 5 urte pasa dira (2002ko azaroan) eta orain dela gutxi jakin dugu garbiketa lanetan parte hartu zuten arrantzale eta langileen artean arnas-aparatuko asaldurak, hormonalak eta genetikoak ematen ari direla. Seguru aski, fuel kutsagarrian dauden hidrokarbuero aromatiko poliziklikoen eragina izango da. Bere egunean, hala ere, agintariek ez zuten eragin posible horiek eta horien ondorengoak aztertzeko interesik erakutsi, adituek hala eskatu arren; hala nola, Miquel Mota, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Osasun Publikoan katedraduna eta garai hartan Epidemiologiako Europako Federazioko Presidentea zenak.

Bai trafikoaren ondoriozko kutsadura, bai Prestige ontziaren isurketarena, petrolioan oinarritutako gizarte eredu batekin erlazionatuta daude. Elementu hori bera erlazionatuta dago Bizkaiko Muskiz herriko biztanleen osasunarekiko kezkarekin eta horren inguruko mobilizazioekin. Izan ere, bertako Petronor findegian *coque* lantegi bat instalatzeko proiektua dago.

Mendebaldeko gizartea krisi energetiko baten barruan dago petrolioaren prezio altuak direla eta, eta "hirugarren munduan" produzitutako bioerregai merkeak erabiltzeko "alternatiba" planteatzen da petrolioaren ordezkatzeko. Noski, era berean, horretan ere etekin piloa daudela konturatu dira. Etanolaren eta biodieselaren sukarra dago orain. 2007an gehieneko prezioak eduki zituzten. Herrialde txiroetako nekazaritza aldatzen ari da; orain, oinarritzko elikagaiak produzitu ordez, bioerregaiak ematen dituzten produktuak produzitzen dituzte, herrialde aberatsentzako. Horrek, dudarik gabe, betidanik sufritu izan dituzten gose arazo larriak handituko ditu, eta ez du onurarik ekarriko, ez ingurumeneko, ez pertsonen ez planetaren osasunerako ere.

Gure inguruan ere, iraunkortasunaren arazoetarako konponbide faltsuak aukeratzen dira; adibidez, hirietako hondakin solidoak erretzeko erabakia hartzen da, eta erraustegiak sustatzen dira energia berreskuratzeko argudio faltsua erabiliz, gero prozesu horretan sortzen diren errautsa eta zaborra bezalako hondakin arriskutsuekin zer gertatuko den esan gabe. Beharbada, etorkizuean, lindano isurkiaren antzeko arazoa edukiko dugu; izan ere, ezkerreko lurretan agertzen ari da oraindik, eta beharbada, diru publikoa erabili beharko da berriro ere, garbiketa lanetarako. Industriak etekin handiak lortuko ditu trukean, guri teknologia hori ondo salduz, eta erakundeek ez diote ingurumen eta osasun kalteak bere gain hartu araziko.

Elikadura ere funtsezkoa da osasunean. Gaur egun heriotza eragiten duten gaixotasun kronikodegeneratibo asko horrekin erlazionatuta daude, zuzenean edo zeharka. Iritzi publikoa eta salubristak kezkatu egiten dira elikadura arloko eskandaluekin; eta horren oinarrian beti egon da elikagaiak, bai begetalak bai animaliak, produzitzeko eredia intentsibo hori. Behien encefalopatia espongi-formea, Belgikan oiloei emandako pentsuen dioxina kutsakorren bidez elika-kate osoa kutsatzea, haragian dauden antibiotiko hondakinak, eta ia mundu osoan ohiko jakietan pestizida hondakinak egotea. Horiek guztiak dira gure elikadura eredutik eratorritako arriskuen adibide batzuk.

Horri gehitu behar zaio, azken urtetan mundu mailan bioteknologia eta manipulazio genetikoak erabili direla nekazaritza eta abeltzaintzan. Espainiar Estatua da arto transgenikoa hazteko hektarea gehien dituen herrialdea EB osoan (75.148 ha 2007an, eta aurreko urtean 53.667).

Hala ere, jendea elikagai transgenikoen kontra dago, ez baitu ezer onik ekartzen kontsumitzaileentzat, ezta nekazari-entzat eurentzat ere. Azken horiek gero eta kezkatuago daude, hazien multinazionalen eta agrokimikoen enpresen mende ikusten baitute euren burua.

Jendearen kezka horren eraginez, 2007ko otsailaren 20an, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak akordio hau onetsi zuen: "Nekazaritzan genetikoki manipulaturako organismoak ez erabiltzeko akordioa". Eusko Jaurlaritzari eskaera egin zitzaion, gure nekazaritza eta elikaduran genetikoki manipulaturako organismoak erabiltzea ekiditeko. OSALDE izan zen talde sinatzaileetako bat, sindikatu, ekologista eta kontsumo elkarteekin batera. Gerora, 2007ko azaroaren 13ko Bizkaiko Batzar Nagusietan, Bizkaia "transgenikorik gabeko" leku izendatu zuten.

{ EAE eta Nafarroako gero eta herri gehiagori ematen diete "genetikoki manipulaturako organismorik gabeko herria" izendapena. Azkena Gasteizko Udala izan da, urtarrilaren 25eko Udalbatzan. Europar Batasunean, 175 eskualde eta 4.500 udalherri baino gehiago dira dagoeneko "transgenikorik gabekoak".

Aipaturako ingurumen arazoen batzuen inguruan, eta talde batzuek hala eskatuta, 2007an hitzaldi hauek eman ditugu:

- Apirilaren 19 eta 26an: Gasteiz: Farmaziako Fakultatea. EHNEko Josu Quintana: "elikagai transgenikoak, munduko egoera eta osasunarentzako arriskuak", "Mercado de la Tierra-Calidad y Cercanía/Bertoko Merkatua-Kalitatea eta Hurbiltasuna" Jardunaldien barruan. Fakultateko ikasle, irakasle eta bekadunak bertaratu ziren eta eztabaida animatu eta polemikoa izan zen egunetako batean, elikagai transgenikoen arrisku, ikerketa eta abarri buruz.
- Apirilaren 25ean: Elikadura, nekazaritza ekologikoa eta osasunari buruzko hitzaldia, Orduñako Kultur Etxean. "Ekoizpen" taldeak antolatuta.
- Azaroaren 23an: Hitzaldia: "gurpildun trafikoak eragindako hiriko kutsadura atmosferikoa eta osasuna", "Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko Mugigarritasun Eskuragarria eta Iraunkorrari buruzko Jardunaldiak" Jardunaldien barruan. Sagarrak eta Ekologistak Martxan taldeek antolatu zituzten Basauriko Ibaigane Kultur Etxean, azaroaren 23 eta 24an.

EMAKUMEA ETA OSASUNA LANTALDEA

Taldearen koordinatzailea: Itziar Cabièces. Psicóloga Klinikoa. Leioako Osasun Zentroa.

Kooperaziorako koadernotxo bat egiten parte hartu dugu. Argitaratu egin da eta Nikaraguako Ocotol eta Hondurasko Santa Bárbara herrietan gaikuntza ikastaroetara doazen emakumeen artean banatu da urte hasieran, urtarrilean.

Komunikabideetan material idatzia bildu dugu, praktika publikoan dagoen **haurdunaldiaren borondatezko etenduraren inguruko arazoaren jarraipena** egiteko. Urrian, testu baten zirriborroa egin dugu, gure Elkartearen inpresio orokorrak biltzeko balioko duena. Bereziki, haurdunaldia eteteko arazoan esku hartzeko arazoaren aurrean emakumeen jarrera zein den ikusi nahi dugu. Gero, gai horren inguruan Koaderno bat edo sortzeko irizpide nahikoa izango dugu. Gai hau modu orokorrean planteatzen hasi gara Nafarroako sare publikoaren arreta ezaz konturatzean, Aratekoari egindako erreklamazioaren eta haurdunaldiaren etendurak egiten diren zentroetan egindako ikuskapenen ondorioz.

Iritziak bat egin dugu **emakumeen kontrako indarkeriari buruz**, eta **nerabeen ikasketa zentro publikoetan banatu da** - Batxilergoa, Laneko Hezkuntza eta Lanbide Hastapenerako Ikastegiak -, **Osasun Zentro eta Elkarte honetako profesionalen eta irakaskuntzako sindikatuetan ere** banatu da, laburpen bezala, heziketarako baliabideetan eta gure lanean egiten dugun Osasun Heziketan aplikatzeko.

Dokumentua **Emakundera** bidali dugu, idazki batekin batera, kanpaina honen barruan egiten diren jardueren berri zehatzagoa izan dezaten. Guzti hori Genero Indarkeriari buruzko Behatokian begiratuko dute, edo hori uste dugu. Horrela, beharbada, gure lana baloratu ahal izango dute. Gurea bezalako elkarte txiki batek osasun eta heziketa arloen arteko lan betaratua egin dezakeela ikusiko dute, baldin eta sentsibilitatea, eskarmentua eta konpromisoa baldin badauzka. Gainera, adierazi nahi dugu lan bateratu hori garatzen ikusi nahiko genukeela, Osasunaren eta Hezkuntzaren erantzule publikoen aldetik.

OSALDEren 25. urteurreneko Jardunaldien Diseinuan gehitzeko proposamen batzuen zirriborroa egin dugu. "Medikalizazioa", "bizitza eta heriotza gure gizartean" eta "**generoaren eragina**". Gure ideia hau hartzen dute barne: OSASUN ARLOKO GURE LANAREN ANALISIAK ETA BALIOAK ALDATZEA, LANA BERA ALDATZEKO MODU BEZALA ETA HORREN BIDEZ ALDAKETA SOZIALEAN AKTIBOKI PARTE HARTZEA.

Ekainean **Hitzaldi** hau egin genuen Bolsa eraikinean: "**Bizitzaren medikalizazioa eta emakumearen eginkizun autonomoa**".

Hona hemen **2008ko helburuak**:

Harremanak sendotzea gure Elkartean parte hartzen duten pertsonen artean, eginkizun batzuei begira:

- **Haurdunaldia Borondatez Etetearen auzia aztertu eta proposamenak egitea.**

- Adituek **papilomaren aurkako txertoari** buruz emandako datuak baloratzea.

- **Osasunean dauden aldeak, generoari lotuta** gaiari buruz ateratako datuak zabaltzea.

- Hurrengo **Jardunaldien** edukiak egitean eta antolakuntzan **parte hartzea**, maiatzean seguruenik, OP/OSALDE Elkartearen 25. urteurrena ospatzeko, zenbait gai eta profesional ekarriz. Horrela, garrantzia eta trinkotasuna izango dugu Jardunaldi hauen bidez lortutako ekarpenetan.

- **Sarean** sartzea, gure orrialdearen bitartez, gune berezi bat, zabala, berritzailea eta osasunaren azterketan sakontzeko, **Generoarekin eta Emakumeen osasunaren berezitasunarekin** lotuta.

- Beste bidalketa bat egitea, **azaroaren 25eko kanpainaren** harira, Emakumeen Zentroetara zuzenduta: Elkartek, Emakumea Sustatzeko Zentroak, eta abar, Emakumeen kontrako Indarkeriari buruz ateratzen ditugun gaien inguruan.

- Emakumeen egoera bereziaren inguruko **Gizarte Foro (NARO, SARE...)** batzuetan **parte hartzea**. 2007an ezin izan dugu horietan parte hartu, beste Jardunaldi interesgarri batzuekin bat egiten zutelako.

- **Beste herrialde batzuetako emakumeak** garatzeko laguntza ematea, gure Erakundeak dituen proiektuen harira Osasun Lankidetzarako Taldearen bitartez.

OSPITALETAKO LANTALDEA

Talde koordinatzailea: Jorge Barrón. Medikua. Mikrobiologia zerbitzuburua.
Gurutzetako Ospitalea

Hitzaldia – Mahai-ingurua: "Giza-akuriak kapitalaren zerbitzura", Jorge Barrónek emana. Bilbon, 2007ko urtarrilaren 25ean

Lekua: Batzar Nagusien Ekitaldi Aretoa. Hurtado de Amezaga, 4

Gizakiekin egindako ikerketa biomedikoa beharrezkoa da, baina arriskutsua ere bai. Gutxi kontrolatutako ikerketa baten biktimak gizartearen sektorerik ahulenetakoak izaten dira, herrialde pobretuak, pertsona urrituak, haurrak, emakumeak... Eta are kezkarriagoa dena, Estatuetakoa agentziek botika berria baimendu baino askoz beranduago ere gertatzen dira istripu hauek, merkaturatu eta milaka laguni eman ostean. Ikertzaileek "seguru eta eraginkortzat" hartutako botikak merkatutik kendu behar dituzte sortutako ondorio larriengatik eta hiltzeagatik. Botika berriekin ikertzea oso garestia da, eta gehien bat industriarik aberatsenetako batek mantentzen du. Horrek zenbateko ikaragarriak gastatzen ditu marketing eta sustapenean, borondateak erosi eta usteltzen ditu, askotan beharrezkoak ez diren tratamenduak ematen ditu herrialde aberatsetako bezeroentzat, eta herrialde pobretuak baztertu eta ukatzen dizkie, merkatu eta finantzen nazioarteko korporazioen alde.

Erresoluzio handiko ospitaleei buruzko jardunaldia. Bilbon, 2007ko urriaren 6an. "La Bolsa" eraikinean.

EAEko Osasun Sailaren iragarkiaren aurrean, Bizkaian "Erresoluzio Handiko Ospitaleak" eraikitzeko, **OSALDE Ospitale Taldeak Jardunaldi** bat egin zuen **Bilbon, 2007ko urriaren 6an**, zentro berri horien gaineko eztabaida sortzeko asmotan. Horretarako, hurrengo hizlari hauen ekarpenak izango ditugu: **Marciano Sánchez-Bayle**, FADSPren presidenteordea, Osasun Publikoaren Defentsarako Elkarten Federazioa, **Pablo López Arbeloa**, Director Gerente de Innovasalud Osasuna Kudeatzeko Aholkulariak enpresaren Zuzendari Kudeatzailea, **Jorge Barrón Fernández**, OSALDE ospitale taldearen koordinatzailea, Ospitaleak taldearen beste kide batzuen esku hartzea eta hainbat parte-hartzaile, Osakidetzako osasun arloko langileak batez ere.

Batzuek eta Besteek, bakoitzak bere ikuspegi pertsonal eta profesionaletik, beren ezagutzak eta esperientziak ekarri zituzten, helburu bakarrarekin: beste interesen artean, **Osasun Eskubidea** lehenestea. Hori babestea da, hain zuzen, Elkarte honen muina.

Argitalpenak: Salud 2000. 2007ko azaroa. Zk. 114, 5-8. orr. "Ikerketa Biomedikoaren alderdi kritikoak" Jorge Barrón.

Ikerketa biomedikoa interesen gatazka larri baten biktima da. Inbertitzaile nagusien interes ekonomikoa gailentzen dira, hau da, farmazia eta teknologia industriak. Farmazia industria eta medikuntzako goitekologiaren nahia da etekinak ahalik eta azkarren lortzea. Beraz, botika "berriak" sortu behar dira herrialde aberatsetan kontsumitzeko, baita herrialde horiek bakarrik ordaindu ditzaketen teknologia tresna berriak ere. Tresna horiek asko erabiltzen dira "teknologiak liluratuta", ezjakintasunagatik eta merkatuaren presioagatik (ohitura kontsumistak, publizitatea, ustelkeria). "Botika berrien" %80k ez du ezer gehitzen, patenteak luzatzeko eta prezioak handitzeko iruzurrak baino ez dira. Gainera, ez dira seguruak. Interes publikoa osasun arazoak konpontzea da, baina baliabide gutxi erabiltzen ditu. Bestalde, Administrazio, preskribatzaile eta farmazia eta teknologia industriaren arteko harremana oso estua da. Zein da interesen gatazka honen emaitza ikerketa biomedikoan? Aberatsen osasunerako ikertzen da soilik. Medikamentuen salmenten %88 Estatu Batuetan, European, Kanadan eta Japonian egiten da. **Errentagarriagoa dena bakarrik ikertzen da, eta ez beharrezkoagoa dena.**

ARGITALPENAK	
--------------	--

2007an 4 OPiniones/Iritziak argitaratu ditugu:

- Emakumeen aurkako indarkeria. Azaroaren 25eko kanpaina.
- Osalde Osakidetzako gatazkaren aurrean. Negoziatzeko unea da
- Osasuna Nikaraguan
- Osasun sailburuak itun sozial eta politiko handia proposatu du euskal osasunerako. Itun soziala euskal osasun publikoa sendotzeko. Baina norekin?

Era berean, liburu hau argitaratu dugu: ***“Introducción a la Antropología de la Salud. Aplicaciones teóricas y práctica”*** (Osasunaren Antropologiarako Sarrera. Aplikazio teoriko eta praktikoak)

2008rako helburu gisa, 2 liburu argitaratu nahi ditugu:

- “Nuestros primeros diez años”, gure 25. urteurrena ospatzeko.
- “Aspectos críticos de la cooperación en salud. 25 años de experiencia”.

3 aldizkari - OP koaderno ere argitaratuko ditugu:

- Ebaluazioa: Aho eta hortzen osasunaren inguruko praktika solidarioak, lau urtez, Hondurasen.
- Ospitaleen egoera. Zenbait eztabaida-puntu.
- 25. urteurreneko ekitaldietako txosten eta komunikazioak.

Era berean, osasun-politikaren arazo garrantzitsuenen inguruko 6 OPiniones/Iritziak ale editatzen saiatuko gara, Euskal Herrikoak, estatukoak naiz nazioartekoak. Horietatik lehenengoa, ekitaldiaren itxieran Osakidetzan dugun lan-gatazkaren inguruko gure balantzea izango da, hala badagokio, datorren martxoan.

ANTOLAKUNTZA ETA FINANTZAK

Urtean zehar nabarmen gehitu da Osalderen presentzia komunikabideetan, hala idatzizkoetan, nola irrati nahiz tokiko telebista bidezkoetan; ekintza publikoei dagokienez, hirukoiztu egin dira pasa den urteko datuekin alderatuz gero (hitzaldiak, mahai inguruetan parte hartzea, mintegiak...); horietan guztietan, arlo desberdinetan parte hartu du Osaldek: Ingurumena eta osasunarentzako arriskuak; Kooperazioa eta Osasuna; Lehen Mailako Arreta; Emakumea eta Osasuna; ospitaleak edo osasun-politika orokorra.

Zortzi bazkide berri lortu ditugu eta lehendik zeuden guztiak mantentzen dira.

Diru-laguntzak

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari diru-laguntza eskatu diogu, irabazi asmorik gabeko erakunde gisa funtzionatu eta argitalpenak argitaratu ahal izateko. 4.500€ eman dizkigute funtzionamendurako eta 1.500€, berriz, argitalpenetarako.

2007ko BALANTZE EKONOMIKOA	
GASTUAK	
Lokalaren alokairua	6.522,90
Telefonoa	1.046,14
Inprenta	10.902,73
Idazkaritza, posta, bestelakoak	610,00
Itzulpenak (Euskara)	904,76
FADSPko kuota	2.002,50
	21.989,03
Sarrerak	
Aurreko saldoa	2.858,77
Bazkideen kuotak	6.954,75
Kooperazio proiektuetarako administrasioaren %5ko kosteak	7.679,00
Funtzionamenduagatik Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntza (2006)	4.500,00
Publikazioagatik Eusko Jaurlaritzak emandako mintegi eta solasaldiak	1.500,00
Lehen mailakoagatik E.J. emandako	750,00
	24.242,52
GUZTIRA SARRERAK - GASTUAK	2.253,49

